

poetas vascos

Batzutan, gustatuko litzaizuke
herri eguzkitsuago batean bizitzea.

Hementxe bertan, adibidez,
aipatze hutsaz
ahoa fruta saporez
betetzen duen herri honetan,
palmondoak abanikatzen,
haize izpirik ahulena biderkatzen.

Batzutan, gustatuko litzaizuke
herri eguzkitsuago batean bizitzea.

Iruditzen zaizu
euriak jan egiten dizkizula koloreak
ez zaudela horretarako egina
noizean behin eguzkia behar duzula
sorpresarik gabeko epeltasuna
kale egiten ez duen izarra.
Baina udaberriko goiz batez
horizontea lainoen gainean igerian ikusterakoan
pentsatuko duzu
argi honetan ez dagoela lekurik
abidentzi alferrentzat
hori herri aguzkitsuentzat
gelditzen dela.

Batzutan, gustatuko litzaizuke
herri eguzkitsuago batean bizitzea,
hementxe bertan, adibidez,
aipatze hutsaz
ahoa fruta saporez
betetzen duen herri honetan,
palmondoak abanikatzen
haize izpirik ahulena biderkatzen.

Arantxa Urretabizkaia

A veces te gustaría / vivir en un país más soleado. / Aquí mismo, por ejemplo, / en este pueblo cuyo nombre, / con sólo pronunciarse, / llena la boca de sabor a fruta, / con palmeras que abanicen / multiplican el más débil soplo de viento. / A veces te gustaría / vivir en un país más soleado. / Te parece / que el sol te come los colores / que no estás hecho para eso / que de vez en cuando necesitas sol / tibieza sin sorpresas / una estrella que nunca falla. / Pero una mañana de primavera / cuando veas al horizonte nadar sobre las nubes / pensarás / que bajo esta luz no hay lugar / para evidencias inútiles / que eso / queda para pueblos soleados. / A veces te gustaría / vivir en un país más soleado, / aquí mismo, por ejemplo, / en este pueblo cuyo nombre, / con sólo pronunciarse, / llena la boca de sabor a fruta, / con palmeras que abanicen / multiplican el más débil soplo de viento.